

Bioteknologiako I+Gren gastua Euskal AEn 123,4 milioi eurokoa izan zen 2019an; altuena 2007tik, % 9,6 egin baitzuen gora

Bioteknologiako I+Gren eskuratutako produktuen ia % 80 giza osasunaren eremuan aplikatzen dira

Euskadiko AEn, 2019an, bioteknologiarekin lotura duten jardueretan barneko I+Gko gastua 123,4 milioi eurokoa izan zen, 2018an baino % 9,6 handiagoa, Eustatek emandako datuen arabera. Gastu hori barneko I+Garen gastu osoaren % 8,3 izan zen.

2.281 enplegatu izan ziren eta kopuru hori, dedikazio osoaren baliokidetzan, 1.473 dira. Dedikazio osoaren baliokidetzako langileen kopurua % 2,1 handitu da, aurreko urtearekin alderatuta; beraz, bioteknologiako dedikazio osoaren baliokidetzako langileria I+Gko dedikazio osoaren baliokidetzako langileriarekin % 7,5 da. Ikertzaile-lanetan 1.107 pertsonak jardun zuten dedikazio osoaren baliokidetzan, aurreko urtearen aldean % 1,7 gehiagok.

Nabarmendu behar da datu horiek, bai bioteknologiako gastuari dagokionez bai dedikazio osoaren baliokidetzako langileei dagokienez, 2007an hasitako serie historikoko altuenak direla.

Era berean, aurreko urteetan gertatu bezala, azpimarratzekoa da I+Gko adar horretan emakumeen presentzia; 2019an lanaldi osoan bioteknologian lan egin zuen pertsona-kopuru osoaren % 57,3 izan ziren.

98 erakundek, guztira –haietatik 92 enpresak–, bioteknologiako ikerketa-jarduerak egin zituzten 2019an. Gainera, kopuru horretatik, 75ek haien gastuaren erdia baino gehiago bioteknologiako barneko I+G bideratu zuten.

Bioteknologiako barneko I+Gko gastuaren % 68,1 Enpresen sektoreak egiten du

Enpresen sektorea da bioteknologiako barneko I+G jardueretan egindako guztizko gastuaren ehuneko handiena duena (% 68,1); proportzio hori 2018koa (% 66,2) baino ehuneko 1,9 puntu handiagoa da.

Gainerako sektoreek –Goi-mailako Irakaskuntzak (% 26,6) eta Administrazio publikoak (% 5,3)– 2019an gainerako gastuaren % 31,9 gauzatzen dute; ehuneko hori, 2018an, % 33,8koa izan zen.

Bioteknologiako barneko I+G: gastuaren eta langileen bilakaera (DOB) Euskal AEn. 2010-2019

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Barneko I+Gko gastuak										
Guztira (mila eurotan)	87.401	85.941	85.646	92.042	86.677	85.691	84.690	93.221	112.534	123.354
Urteko Gehikuntza (%)	8,5	-1,7	-0,3	7,5	-5,8	-1,1	-1,2	10,1	20,7	9,6
Langileak (DOB)										
Guztira	1.027,3	1.032,9	1.081,8	1.182,9	1.183,7	1.255,5	1.234,8	1.345,5	1.442,1	1.472,7
Urteko Gehikuntza (%)	14,3	0,5	4,7	9,3	0,1	6,1	-1,6	9,0	7,2	2,1
Ikertzaileak (DOB)										
Guztira	797,0	752,6	809,8	903,3	909,3	977,0	964,5	1031,0	1.087,7	1.106,7
Urteko Gehikuntza (%)	7,7	-5,6	7,6	11,5	0,6	7,4	-1,3	6,9	5,5	1,7

DOB= Dedikazio osoko baliokidetzak

Iturria: Eustat. Bioteknologiako I+Gren estatistika

Administrazio publikoak bioteknologiako barneko I+Garen % 51,3 finantzatu zuen


Funtsen jatorriarren arabera, bioteknologiarekin lotutako barneko I+G jarduerak, 2019an, Administrazio Publikoaren (% 51,3) eta Enpresen (% 35,9) funtsekin finantzatu ziren nagusiki. Gainerakoa, Atzerriko funtsek (% 9,2), Goi-mailako Irakaskuntzak (% 2,1) eta Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak (% 1,5).

Bioteknologia-ikerketatik lortutako produktuak, batez ere, Giza Osasunean (% 79,4) eta Elikaduran (% 7,5) aplikatzen dira. Gainerako arloetan banatzen da beste % 13,1a, antzeko ehunekoekin: Ingurumena, Animalien osasuna eta akuikultura, Industria eta Nekazaritza eta baso-produkzioa.

Kapitalerako sarbidea eta Denbora/kostua dira bioteknologian barneko I+G jarduerak garatzeko oztopo nagusiak

Azkenik, bioteknologiako ikerketa- eta garapen-jarduerak 2019an aurrera egitea zaildu duten oztopo nagusiak Denbora/kostua erlazioa eta Kapitalerako sarbidea dira, % 88 eta % 84, hurrenez hurren. Arautze-betekizunak hirugarren tokian daude, % 76rekin.

Bioteknologiako I+G garatzeko oztopoak (%). 2019



Iturria: Eustat. Bioteknologiako I+Gren estatistika

Oharra: Eustatek eskerrak eman nahi dizkie estatistika hau egiten lagundu duten enpresa eta erakunde guztiei, egoera gorabehera, egin duten ahaleginagatik. Haien laguntzarik gabe, ez zatekeen posible izango.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62